

## Ainerra

Herria du 5 janvier 2012

### Mus xapelketa Auxotean, urtarrilaren 14an hasten

Aurtengo mus xapelketa laster hastera doa. Orroitz izenak urtarrilaren 7ko eman behar direla, eta larunbat arratsetan, urtarrilaren 14tik goiti mus haitadak Auxotea ostatuan egingen direla. (Ozen 59 29 43 63) edo Pette Ospital (06 71 41 82 75), ez baita oraino berantegi.

Frantziako xapelketaren finala haundia, Pazko astelehenez Larzabaleko trinketean iragan beharra da aurtengoa. Nola aurtengo xapeldunek munduko xapelketan parte hartuko duten Kanadako Vancouver hiriko nagusian, pidala eder hortan parte hartzen ahaliko dute xapeldunekin betan musiale edo hauen segitzaleek ere. Anartean, inbido, hordago, eta kanta !

### Pilotarien berri on batzu

Berriketan hemendik alpatu ginauzuen Bixente Oyhenart Aihertar esku huskulariaren sasoin ona. Beste pilotari batzuek ere merezi dute alpatzea, lortu emaitzak ez baitira txarrak. Nesketan, Katin Durruty eta Mirentxu Landagaraiak 40-38 galdu dute Senpertainen aurka. Euskal Herriko xapelketaren kondu, final laurdenetan. Mutikoetan, "junior B" mailan, Julien Uhart eta Philippe Mongaburek 40-23 galdu dute finalerdietan, Ascery eta Oteiza Zaharrer Segi-koen kontra, hots aurtengo xapeldunen kontra trinketean. Ezker paretean aldiz, Xitoak B mailan, finalerdietara hupatu dira Iban Izoco eta Benito Bureau-Lafitte, 15-9 galduz Miarriztarrak. Biba zuek eta segi aitzina !


### Gazteek sokatiran galdu

Euskal irratiek, azken urteetan pesta komite edo herrien artean, zoingehiagoka bat antolatzen dute, herriko pestak hurbiltzearekin. 2010ean xapeldun ateraiak ziren Aihertar gazteak, eta 2011n ez baitzuten parte hartu ahal izan. Larresoroko 2011ko xapeldunen kontra joan den astean lehiatu dira. Emankizun gustagarri bat izan da entzuleentzat, eta aldi huntan Larresoroko "Itarroak" nagusitu dira. Biba zuek, eta segi irpitu berarekin. Goresmenak Larresoroko adixkideeri, ahanzi gabe irpitu zoingehiagokaren antolatzaileak !

### Antzerkiaren arrakasta !

Abenduaren 30a hautatuz, Belzuntze elkarteak kideek ez zakiten batere hea eguna, ostiral arratsa, urtats afari bezpera, egokia izan zen jende edo ikusleen beren etxetik jalgiazteko. Makeako Jostakin taldeko gazteen azken emanaldia izanki eta, arratsa zinez kausitua izan da,

Makear antzerkiari gazteak



Publikoa txaloka



Denen Etxera 150 ikusle hurbildu baitira, erdiak herritarrak eta erdiak auzo herritarrak, adin guzietakoak. Denek ziotenez, plazer egiten du ikustea gazteak holako aisetasunarekin antzerkian. Giro ona badutela beren artean ez da dudarik, eta horietan talendu haundiko aktore andana bat bada.

Goresmenak Pantzo Irigaray bi antzerkien idazleari, arralierraren bitartez jakin izan baitu publikoaren deskantsatzen, irri zafra batzu egin araziz. Ondotik Trikeroko taldearen musika entzunez, hurrupaldi bat hartuz eta kalaka batzu egingez bururatu da antzerki gaualdia. Bai zinez, antzerkiarentzat publiko bat badela, ageri da. Hea, ondoko aste edo hilabetetan, herritar batzu menturatzen direnez taulen gainera igaitera !! Urte berrirako, agiantza hoberik ez dugu opatzen, gogoetan ari diren herritar batzueri...

### Urte Berri On, osagarri on batekin !

Irakurle guzietar, herritarrak ala urrunetik Herria astekari hunen bidez hemengo berriak segitzen dituzten, berriketariar eta astekari huntako langiler, desiratzten diegu urte berri on eta ahalaz zoriontsua. Penetan diren familier, eritasunak, presondegiak ala heriotzak jo dituen familier, kuraia on eta atxik dezatela esperantza !

## Aiherra

Herria du 26 janvier 2012

**Heriotze** - Gure Etxolako Edwidge Lissar zendu da, minbizia loturik. 85 urte zituen. Bere senarra Pier, duela 5 urte zendu zen hura ere minbiziarekin. Ez zuten haurrik. Sortzez austriarra zen Edwidgek erraiten zuen bizi uros bat iragan zuela senarrarekin, eta auzoekin. Lan denboran, aintz herrialde kurrituak zituzten senar emazte hauek, orotara 17 herrialdetan lan eginik. Hizkuntza asko mintzaten zuten. Erretreta harturik, Pierrekin eraiki etxera etorri ziren hunen sorterrira. Familiako eta herritar aintzek parte hartu dute Edwidge zenaren ehorzketetan, astelehen arratsaldean. Gure doluminak familiari.

**Musean, xuxentze** - Iragan astean aipatu ginuen 31 parek hasi zutela mus xapelketa Auxotean, adin guzietakoak. Egiak bere bidea egin beharrez, ez dira 31 pare, bainan bai 41 elgarretaritzen direnak, larunbat arratsetan, ahalaz denek irabazteko

nahiarekin. Lehen 8 hoberenek segitzen ahaliko dute, kantonaletan, eta urrunago joanez, Pazko asteleheneko finala handian parte hartuko. Anartean, xantza on guzietari !

### Euskal Herriko Mus Xapelketa lehen aldikotz gure herrian

Badu zonbeit urte, Euskal Herriko mus xapelketa bat antolatzen dela, probintziak, finala handi batekin bururatzuz, Ipar edo Hego aldeko toki batetan, eta balio handiko sariak eskainiz. Zango baloiarekin euskal selekzioa muntatu duten bezala, Euskal Herri mailako mus federakuntza bat xutik ezarri dute, Euskal Herriko 7 probintziak konduan hartuz. Aurtengoa, Euskal Herriko mus xapelketaren lehen itzulia antolatzen da Aiherran. Kanporaketa otsailaren 3an, ostiralez egingen da. Saritzat 3000 euro eta bidaiak 4 pertsonentzat. Partidak arratseko 8tan hasiko dira Gaztebean; Izenak eman 05.59.29.30.68 telefonora deituz.

## Aiherra

Herria du 12 janvier 2012

### « Goiti Aire »koen biltzar nagusiaren ondok

« Goiti Aire » 3.adinekoen elkar-teak, bere urteko biltzar nagusia egin du abenduaren 20ean, Attatea ostatuan. Orotara 55 bat lagun bildu dira.

Hoin nonbre haundian etorri kideak egin etorria egin ondoren, batasun huntako Jean-Pierre Sainte Marie lehendakariak urteko harat hunaten berri eman du. Bulegoko 3 kide baitziren arra-berritzeko, 3ak berriz hautatuak izan dira, hauiek dira : Maite Haristoy, Mayi Minjou eta J-Pierre Sainte Marie. Mayi Minjou diruzainak urteko konduen berri eman

go arduradunek dei bat bihurtzen diete, oroitaraziz oraino sartzen ahal direla eta ongi etorria izanen dutela.

### Heriotze

Extekateiko Gratien Darraidou zendu da iragan asteburuan. 90 urte zituen eta Izpuruako xahar etxera erretiratu zen zonbeit urte hautan. Ximona zena bere emaztearekin, 4 haurretako familia altxatu du, herri erdian aurkitzen den Extekatea laborari etxaldean lan egingez. Ongi etorri egilea, maite zuen jendeen errezebitzea etxe arnoa jastaraziz. Herriko kontseiluan ere egona zen urte an-



Bazkari denboran herriko 3.adinekoak kantuz.

ondoren, denek mahain on baten inguruan segitu dute eguna, bazkari denboran zonbeit kantu xaramelatzuz eta ondok mus partidak batzuekin, ohargabeen iluna aski fite jin zakotelarik, hots omore onean.

GOITI AIRE elkarte huntan oraino sartuak ez diren 3.adinekoer, hor-

dana batez, eta herriko baskulaz arduratu da ere. Gratien zenaren ehorzketak astearte arratsaldean iragan dira Aiherrako elizan. Gelditzen diren Marie Hélène, Jean-Pierre, Gracie eta J-Louis haurrak, Jeanne, Arño eta Louis anaier eta hauen familieri, gure dolumin biziarenak.

## Aiherra

Herria du 19 janvier 2012

### Lunetak edo begilagunak Madagaskarrera

Hirugarren adinekoek jakinarazten dute joan den urtean egin zuten bezala, aurtengoa ere baliatzen ez diren edo soberakin diren luneten edo begilagunen bilketa bat egingen dutela, Madagaskar herri eta ugartera igortzeko.

Zuen emaitza J-Pierre Sainte Marie Xedarrikoari helarazten ahal duzue, hilabete hunen ondarreko. Nahikaria da urrats ximple hau egingez gure soberakinekin, bixta guti edo txarra duten hango anai arber iguzki pixka denek ekartzea, hots gutiz kontent den jendeari. Azken epea otsailaren hastapena da. Aintzinetik eskerrak !

### Berri laburrak

- Mus xapelketa abiatu zaku joan den ibiakoitzean, Auxotea ostatuan. Aurtengoa 31 pare kordatzen ditugu, adin guzietar.

takoak, horien artean gazte batzu lehen aldikotz xapelketan parte hartzen dutenak. Xantza on guzietari !

- Pesta komitearen biltzar nagusia, aurtengoa, urtarrilaren 28an finkatua dute, larunbatarekin, goizeko 10etan, Denen Etxean. Ondotik, mahain on baten inguruan bildu behar lukete, Attatea jatetxean.

- Bixente Oyhenart herritar semea berriz ere Frantziako Xapelketako finalean dugu, joan den ibiakoitzean Hegoalderaren bere lagunarekin, Etcheto eta Maitia Hazpandar pilotariak 40 eta 20 garaiturik. Finalean, Euskal Herriko xapeldunak dituzte parrean atzemanen, Muscarditz eta Arbeletche. Biba hein hortara heldurik, eta xantza on !